

“PRINCIPE DE VIANA”



SUPLEMENTO EN VASCUENE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Delegado para el Suplemento
en euskara
MARCELINO GARDE

XVI gn. urtea
148 gn. zenbakia

Iruña -1982- Urtarrila

Franq. conc.
N.º clas. 34/60

Director de la Institución
Príncipe de Viana
FERNANDO REDON HUICI

Aurtxo bat jaiotzen denean, naitanaiezkoa da galdera: —«*Umetxo au zer izanen da?*» Eldu zaigunean urte berri bat ere: —«*Urte jaio-berri au... zer aterako ote zaigu?*».

Urte berri, urte zaar, urte guziak berdiñak izaten dira beti: 365 eguneko epea; egun oiek, guk gizakumeok, zorionez edo txarkeriz bete aal izan ditzegun.

URTE BERRI: LONGI ETORRI!

Urtea ezer ez da; zagi utsa besterik ez da. Zagiak ez du baliorik:

ardoa izaten da, zagi-barrengo ardo, balioa duena. Eta ardo ori, ona edo txarra, guk jartzen dugun bezalakoa izanen da. Zagi ori guk bete bear dugu —maitasunaren emari— ardo on gozo bikaiñez, edo zipozkeriaren eta gorrotoaren frutu mingarri den ozpiñez.

Oraindik-oraintxe asi-berri dugun urte ontan ere ez zaigu euskaldunoi arazorik faltako. Gure ustez, bi dira, arazo oietan larriak: lanarik-eza eta egiazko pakearen falta edo peitutasuna.

Euskalerrria'n lanik ez dago; ez ditzegun gure buruak atzipetu. Gure gauzak garestiegiak izaten dira, atzerrian salduak izateko. Baiña, ¿nola gure gauza oiek merkeagotu?

Euskalerrria'n egiazko pakerik ez dago. Eta orrela erri bat jasotzerik ez dago! Ala ta guztiz, ez dezagun itxaropenik galdu. Len ere maiz egon oi da Euskalerrria egoera larrian; baita orain baiño larriagoetan ere. Eta beti jaso aal izan du bere burua.

Izan gaitezen euskaldunok pakearen maitale, «*pake txarrenena obea bait da gerrarik onena baiño*», Zepai bertsolariak 1936'gnean. abestu zuen bezala.

Izan dezagun elkarrenganako begirunea, «errespetua». Euskaldunon pekatu nagusia, arroegiak izatea da; Xenpelar'en bertsoetan esaten denez... «*Gaitzak gerade umiltzen eta pakean unitzen*». «*Orreaga'z gero, ez dugu euskaldunok deusetarako elkar artzen asmatu*», esan oi du berriz Oteiza irudigilleak; eta arrazoi aundia du.



Bide baten antzekoa da urte berri bat. Bide luzea! Ta... zailtasunik eta eragozpenik gabeko biderik izaten al da munduan? Bidea...! Bada, naitanaiez, guziok ibilli bear dugun bide bat: biziaren bidea. Eta gizakumeok bezala, erriek ere ibilli bear dute bide ori. Eta 1982'gn. urtea, Euskalerrria'k ibilli bear duen bidearen zati berria da. Sartu gaitezen elkarrekin pozik urte gazte onen bide berrira!

EUSKAL

ERRIKO LEIOA

ERROIXA'N ERE «OLENTZERO»



Aurten, «Olentzero» Errioxa'n ere izana omen da.

Errioxa'n, iririk aundienetakoa eta politenetakoa, Kaltzada'ko Santo Domingo da.

Ba, izparringiek (periodikoe) esan digutenez, aurtengo Eguberrian, «Olentzero» iri artako karriketan ibillia da. Eta «Olentzero» rekin abeslari talde bat. Maixu batek prestatua izan da Eguberri-pesta ori.

«Olentzero» Errioxa'n! Ez da arritze-koa. Errioxa guzia Euskalerrri izana baita. Oraindik ere, euskal izenez beterik daude Errioxa'ko mendi, oyan, ibai, iturri eta lurralde guziak. Eta ango jendeak, berriz, euskal abizenak dituzte askok eta askok. «Olentzero»'ren

agerketa au prestatu duen maixu orren abizena ere Uyarra da. Eta Santo Domingo'k berak badu euskal izena: *Oz-kabarte*.

Argi dago Kondairan, Errioxa berez euskal erria zela; eta euskal erria zelakoz, naparrek lagundu zioten mairuen artzaparretatik ateratzen. Eta gurekin elkaturik bizi ziren Naparroa'ko Erresuman, aunitz mendetan, gure aldetik Gaztela'k indarrez arrapatu arte.

Dena dela, aurten «Olentzero» Errioxa'n.

Gipuzkoa'ko Goyeri'n maixu egona dugu Uyarra jaun ori; Gipuzkoan ezagun eta maite izan zituen euskal abesti ta oiturak. Antxe ikusi omen zuen «Olentzero» jaia, eta andik eraman omen du Errioxa'ra, len euskalerrri izandako lurralde orri, euskal usai pixka bat berriz itzultzeko.

AKONKAGUA'REN MALDAN BI NAPARREK AURKITU EGAŹKI BATEN ONDAKIÑAK

Ego-Amerika'ko mendi tontor aundiena Akonkagua izenekoa da. Mendi tontor orren beetik gorako goitasuna 7.093 metrokoa da. Arjentina ta Txile'ren mugan dago mendi kankaillu ori. Eta tontor orretaraño igoak ditugu bi Iruña'ko mendizale: Ariz'tar Jose Inazio ta Abrego'tar Mari; igoera ori, joan den Urtarril ontako 19'gn. egunean.

Ibilketa onek izan du gauza jakingarrri bat: bi iruñ-seme auek, orain dela 35 urte eroritako egazkin bat aurkitu zuten Akonkagua'ren maldan. Urrez zamaturik jausi omen zen egazkin ura.

A! Ta, Araba'ko talde bat eldu zen mendi-tontorrera ondorengo egunean.

Gure zorionak, Naparroa'tik, gure ta Araba'ko gazteei.

NAPARROA'N ZENBAT XAGU?

«Tolosa... Gazta gutxi eta xagu ugari!», esaten zuen tolosar batek, Tolosa'ra kanpotik, bor-borka, jendea joaten asi zenean.

Naparroa'n, gazta badugu... oraindik. Zenbat ote gera, orde, emen, umore gozoko tolosar arek esaten zuen bezala, zenbat ote gera emen xaguak?

Auexek dira azkeneko zenbakiak:

Joan berria zaigun 1981'gn. urtean, 507.367 bizi-lagun izan ditu Naparroa'k. (Orain dela amar urte, 464.881 zituen; geitu dira, ba, 42.486 bizi-lagun, amar urte auetan).

Ona emen gure iririk aundienak:

Muskaria (Tudela) 24.629 biztanlerekin; Burleta (Burlada) 13.337; Lizarra (Estella), 13.086; Ansoain, 11.417; Tafalla, 9.863; Baztan, 7.983; Altzatsu, 7.250; Billaba, 6.253.

JUSTO GARATE EUSKALTZALE OSPETSUAREN SEMEA IL

Min aundiz astindu gaitu il-berri onek: «Justo Garate'ri il zaio semea!». Zoritxarrez egia da; Urteberri egunean, 45 urte dituelarik, ia bat-batean, il zen Arjentina'n Mixel Garate, gure adiskidaren semea.

Askatasunaren Gosea

Ez dakit Sajarof nor den badakizuten. Base-rietan bizi zeratenok beintzat, ez duzue, seguruaski, jaun ori nor den jakingo.

Mundu guzian anitz ezaguna dugu Sajarof errusiarra. Batez ere, azkeneko egun auetan egon da bere izena bazter guzietako yendeen ezpaitan. Sajarof fisikalaria da, jakintzaren alor ortan arras jakintsua. Baiña, baita demokraziaren maitale ere bada Sajarof. Bigarren maitasun onek ospe aundia eta neke latzak ekarri dizkio.

«Nobel-Saria»'z ornitua izan da gizona, pa-kearen alde egin dituen lanen truke; baiñan, baita're, espetxetik espetxera erabilli izan du demokrazi ororen etsai den Errusi'ko Jaurlaritzak.

Azken ontan, deus ere jan gabe egona dugu Sajarof. «Gose-oporra» edo «uelga» egin du, orain esan oi den bezala. Zergatik? Errusi'ko Jaurlaritzak, aren errañari, Errusi'tik atera uzten ez ziolako. Amerike'tako Laterri Elkartuetan bizi da Alexei, Sajarof'en ugazamea. Errusi'n bizi den Lisa neskatxarekin ezkondu da, bitartekoen bidez. Baiña, bitartekoen bidez egiten diren ezkontza auek ez dituela Errusi'k onartzen eta, Jaurlaritzak (Gobernuak) ez zion Lisa'ri bere senarranrengana joateko baimenik ematen.



Sajarof'tarrek «gose-oporra» egin dute Errusi'n, beren erraiñak andik kanpora ateratzeko giza-eskubidea erdietsi arte, U.S.A.'n dagon senarrarekin alkaturik bizi dedin.

Gose oporraren bidez erditsi dio aitagarreak baimen ori. Errusi'ko Jaurlaritzak errukitu delakoz? Bai zera! Mundu guzia Sajarof'en alde atera delakoz!

Ase aal izan du, azkenean, Sajarof jakintsuak bere ogi-gosea. Noiz ase aal izango ote du askatasun-gosea?

Izen aundikoa da Justo Garate jauna euskaltzaleen artean eta denok sentitzen dugu aren naigabe samiña.

Beste ta ainbeste euskaldun bezala, Garate'tarren familia atzerrira joan zen. Justo Garate, sendalaria delarik Arjentina'n izan du bere bizimodua; an, ain urrutian, nola landu dituen euskera ta euskal kultura!

«Principe de Viana Erakundea»ren aldizkarietan aspaldiko lan-kide jakintzua dugu. Aien ondoan gaituzte Garate'tarrek gure giza-dolumiñez, gure kristau-otoitzez.

«DOCTOR HONORIS CAUSA» IZENDATU DUTE LAKARRA IRAKASLE NAPARRA

Donosti'ko Lege-Jakintza Salleko Zuzendaritzak, Euskalerrri'ko Ikastetxe Nagusiko «*Doctor Honoris Causa*», goi maillako izendapena eman dio Erdi-Aro'ko istoria-gauzetan napar jakintsu oni. Erabaki ori Donosti'ko Elkarteak bere azkenenکو billeran artutakoa da.

Zergatik izendapen ori gure naparrari? Lakarra jaunak, Euskalerrri'ko Lege-Jakintzako gora-beratan azterketa jakingarriak egin dituelako.

BIGARREN MAILLAKO AIZKOLARIEN TXAPELKETA

Aurtengo lenengo astean Tolosa'n jokatu da Bigarren Maillako Aizkolarien Txapelketa. Ortarako, aurretik Aretxabaleta'n egin zuten lenengo saioa, onenak ondoren Tolosa'n joka zezaten. Aretxabaletan, 25 aizkolari izan ziren; Tolosa'n, ordea, 10 bakarrrik.

Tolosa'ko jokoan, diru jokazaleek Mindegia Ilario'ren alde jartzen zuten beren dirua; Ilario, Mikel Mindegia'ren anaia gaztea dugu. Esatekoa da irabazle guziak naparrak direla; ona emen beren izenak:

- 1 Ilario Mindegia, Ezkurra'koa
- 2 Erdozia Yon, Etxarri-Aranaz'koa
- 3 Nazabal, Etxarri-Aranaz'koa
- 4 Gorriti Manuel, Uarte-Arakil'goa

AITA SANTUAK ITZEGIN DU

Paul II'gna. polonitarra da. Munduko Irrati (radio) eta Ikustirradi (telebisio) guziek zabaldu dituzte, Eguberriz, Erroma'n Aita Santuak esan zituen itzak. Guziek! Poloni'koek ez, gaiñeko guziek! Aita Santuaren itzak ez du bere Aberrian oiartzunik izan...

Ta zer esan du Aita Santuak?

Auxe besterik ez:

- Gizon guziek askatasunerako eskubidea badutela.
- Eskubide orren aurka letorkian guzia, naiz kapitalismotik etorri, naiz komunismotik, okerkeri utsa dela.
- Jesus, gizakumeei azkatasuna ematera etorri zela mundura.
- Kristautasunak ematen diola gizakumeari bere aunditasunaren neurria.

106 URTE BETE IZAN ZITUEN

Errege egunean 106 urte bere izan zituen Irun'en De la Torre Mendizabal Flora andreak. Rementeria'ren alargunak. Naiz itsututa egon, osasuntsu arkitzen eta pixkor-pixkor gañera. Berez bizkaitarra da, baiñan aspalditik Irun'en bizi da. Urte-betetze orien aitzakiz, zorion ugari jaso ditu Gipuzkoa'ko amon xar orrek, ta bertako Alkate jauna ere beregana joana dugu, aurrez aurre zorionik beroenak opa egiñez.

EUSKALERRI'KO TALDEAK ZUZENEN ARTEAN

Egia da, benetan, «Real Sociedad» izeneko Taldearen jokalaria izaten direla zintzoenak eta zuzenenak ostiko-jokoan aurtengo Txapelketan. Bazter guzietako berri-emalleek agobatez adierazten dute. Ortarako neurri egokia artu dute «zigor-txartel» bana-keta, jokalaria bakoitzari ematen bait zaio zigor-txartela jokoan zerbait itsus eta gaizki egiten duen bakoitzean.

Ikus dezagun, Urtarrila'ren azken igandean, illaren 31'gn. egunean, gauzak nola dauden:

Taldearen izenak	Txartel oriak	Txartel gorriak
REAL SOCIEDAD	14	0
Valencia	18	0
Betis	21	2
Cádiz	21	3
Castellón	22	2
Santander	23	0
OSASUNA	23	1
Gijón	23	1
BILBAO	24	0
Hércules	24	1
Madrid	25	3
Valladolid	26	1
Atl. Madrid	26	2
Español	26	3
Barcelona	28	4
Zaragoza	30	2
Sevilla	32	2
Las Palmas	36	2

Ikusten dugunez, gizatasunari buruz Donosti'koak nagusi; ez da makala ere Bilbao ta OSASUNA Taldeen egoera. Donostiarrek eta Bilbotarrek ez dute txartel gorriarik oraindik ikusi; OSASUNA Taldean, bai, BAT erakutsi zieten; nori?, ta Etxeberria bedeinkatuari! Egia esateko, iñork ez daki nola edo zergatik zigortu zuten gure goizueta-rra.

GAUZA BERRIA IRUÑA'N



«Arco Iris» edo Ortzadar izeneko beribilla, tximist-indarrez erabiltzen da. Ez du zaratarik atera! Ez du aizea kutsatzen! Eta, orren gañera, eguneroko gastuetan merke, aurkezpe-nean esan zigitenez.

Gauza berria da, gure artean beintzat, tximist-indarrak edo elektrizidadeak darabilkien beribil bat. Beribil oietako bat ikusi dugu, Urtarrila'ren azken egunetan, Iruña'ko karriketan saioak egiten. Jakingarri da aren motorra Bizkaia'n egin dutela, eta gaiñerakoa emen, Iruña'n bertan.

Lau urteko lana eraman du, 25 milloi pezta balio dituela. «Arco Iris», Ortzadarrak, jarri diote izen, saietsetan Ortzadarraren zazpi margo edo koloreak daramazkielako.

Orduan 60 kilometro egin dezazke, eta 25 lagunentzat lekua badu. Ez du lurrik zikintzen, ezta aizerik ere, eta ez du soiñu zakarrik ateratzen.

Len bai len etorria bedi Euskalerrri'ko karriketara napar «Ortzadar» berri au!

TXAKURRA: lagunik zoragarriena

Etxeetan gero ta bakardade aundiago dalako edo, gero ta txakur geiago ikusten da. Askorentzat, moda bat besterik ez da, baña txakurrekin zerbait ikusteko degunok badakigu ori bakarria ez dala.

Txakurra bere jabearentzat, izan diteken lagunik zoragarriena da; leiala inor leialik ba'da; esan aditzallea; alaia, jostalaria ta nik al dakit zenbat gauza geiago.

Ez da, ba, arritzekoa txakur-jabea bera ere txakurarentzat ona izatea. Jaten ongi emango dio, al duan txukun eta garbiena edukiko du; gaxotzen ba'da, etxeko bat bezin ondo zaituko du; aur bat bezelatsu pallakatuko du; itz gutxitan esateko, senide bat bezela maitatuko du.

Maitasun au dala-ta, okerren bat edo iltzea gertatu ezker, txakur-jabearen naigabea neurtu eziñekoa izan oi da.

Nere lagun batek bazuan txakur bat eta berebillak jo ta bertan il-da utzi zuan. Bere naigabea agertuaz ala esaten zidan:

—Zer naigabe izan dudan esaten ez dek erreza! Loa galtzerañokoa, gizona! Ez nitek beste orrelako naigaberik izan nai bai, ta sekula santan ez diat beste txakurrik izango!

Andik puska batera, or nun ikusten dudan txakur bat aldameanean duala, ta nere galderari erantzunez ala zion:

—Etsi ezin, gizona! Etxera irixten nintzan bakoitzean, len txakurra egin oi zidan arrera on ura, yautzi ta iya musu ematerañoko agur ura aztu ezin eta... beste au ekarri diat.

Oneraño, txakurrak eta bere jabeak alkarrentzat dituzten alde onak; baña, jabea bear bezelakoa ez danean, txakurrak okerrak ere egin ditzake.

Auetako bat, kaleak zikintzea da. Ongi erakutsi ezker, txakurrak ondo ikasten du, ta etxean bazter batean zerrautsakin edo leku berezi bat artarako jarri ezker, bere bearrik antxe egingo lituke; edo kalera ateratakoan, legeak agintzen duan bezela katetik elduta eramanda, espaloi erdian bere «erregalia» utzi bearrean, bazter batean edo egin-araztea ez litzake zalla izango.

Oso itxura txarrekoa da egunero ikusten ditugun itsuskeriak ikusi bear izatea ta uste gabean oñeta-koak gañean sartzea okerragoa oraindik.

Noizbait entzun izan det, Paris'en, Japon'en edo beste nuntaiten, txakurrak kalean egindako bearrik, palatxo txukun eta polit

batean jabeak jasotzera beartzen dituztela. Orrelako aginduren bat eman bearra dagoela derizkiot,

kaleak txukun eta garbi eduki nai ba'ditugu.

ALBAITERUE

Paul Legarralde (G.B.)

DOA



Paul Legarralde jauna, egiazko euskaldun gizona. Euskal Erriari eman zion bere biziaren mamia.

Legarralde jauna, euskaldun langille asper-eziña, ill berria dugu, Bida-soa ibaiaren beste aldean, Endaya izeneko urian, 83 urte zituala.

Beti lanean batere gelditu gabe ibiltzen zan gizon ori, jakinduri aundikoa zan, danetik bait zekien; musika-zale aundia izanik, kanta edo abesti berriak sortzeko egokitasunaren jabe zan, ta Elizan organu-jotzalle; ortaz gañera sorturik zeukan kantari-saill edo abestalde berezi bat, gaur emen eta biar an, jai-aldi guzietan kantari, giro-alaya nunnai eta noiz-nai zabalduz. Euskerazale sutsua ere bazan, eta Endaya'n ateratzen dan «Haize Garbia» illerokoaren zuzendari, sortu zanez geroztik. Illeroko onek naiko lan izango, du ark utzitako utsunea betetzen. Kristau zintzo ere bazan eta beste doai auek ere bazituan: deportista edo kiroltzale yayua, bere gazte denboretan batez ere, bai pelotari, bai futbolista edo ostikoka jokolari, judozale eta boseo eta rugby jokolari.

Orain agertu berria da Bayona'n beste illeroko bat, «AGER» izenarekin, ta emen ere bazuan zer ikusia, bera an ibilli bait zan, kaleratu aurretik egin ziran lan guzietan.

Orain dela 46 urte emen euki genduan gerra edo guda zala-ta, emendik alde egin zuten amaika euskaldunek, Agirre ta Irujo bezela; ta Legarralde jauna oso adixkide egin zen Irujo'kin-ta, iritzi berdiñekoan bait ziran.

Gaurko egunetan Euskalerrria'n, gogorkeri geiegi dabil, odol ixurtze ta eriotza bazter guzietan, negarra ta bizi-eziña...; ba, orrelako gertaera beltzak aditu orduko, suak artuta jartzen zan Legarralde jauna, ta onela mintzatu oi zan: «Gogorkeriak, gogorkeria dakar beti bere ondoren; ta jokabide ortatik, Euskalerrria'rentzat ez dator gauz onik».

Nolako Euskerazale sutsua zan jabetzeko, jakin dezagun, illeroko «Haize Garbia» ren bitartez, lau liburu edo idazti antolatzen ari zela ill-aurretik; AURRENTZAT, Euskera ikasteko era berezi bat, eta berdiñ gazteeentzat eta eldutako guzientzat; ta oiekin batera dizionario edo iztegi eder bat ere bai.

Ain gogo beroz zebillen lau idazti oiek gertutuz, ta azkenean lan bikain ori era bat bukatu edo burutu gabe joan zaigu beste mundura; bere ametsa egi biurtuta ikusi gabe; dana dela, berak ereintako aziak emango du bere uza, eta askorentzat ongi etorriko da.

Orrelako gizonak ill eta beste mundura joan arren, beti gogoan eukitzen dituzte erri guziak; orrengatik oraingo ontan ere, ez dute puska batean aztuko iparraldeko euskaldunak.

Ikusi degunez, benetan gizon aparta ta berezia Legarralde jauna, gaurko egunetan maiz ikusten ez diran oietakoa, ta eredu eziñ ohea danontzant.

Gure aldetik beren eginkizuna bete ondoren beste mundura alde egiten digutenean, era ontara mintzatu bear, itz auek esanez: Agur Legarralde jauna. Goian bedi, eta zeruan alkar ikusi arte!

Reuma Arintzeko

MEDIKU ZAARRA

Berrogei urtetik goragoko giza-seme guziek daramate gutxi edo geiago berengan erreuma; ta orobat gogortuta eziñik ez gelditzeko, garaiz neurri batzuk artu bear dira; ta, ortarako, ona emen jakingarri zenbait:

1. SENDAGAIK ARTU

Lenengo egin bear dena, sendalariak agindu dituen sendagaiak artzen jarraitu; gaitza au, sendatzen ez den gaitza da: arindu, bai; baiña, sendatzen ez dena.

2. JANAK ETA EDARIAK

Janariak beti motelak izan bear dute, au da: gatz gutxikin maniatutakoak; ta gutxi antzea jan, gizontzea kaltegarria bait da. Alkoolarekin ere, kontuz; gutxi artzea, obe!

3. GARBITASUNA

Egunero-egunero, ur beroarekin dutxatu edo goitik-beerako ur parrastaldi bat artu; oiturazkoa baiño luzeagoxea. Garbi-gelako ur-ontzian uretan sartzeko oitura izanez gero, ur barruan egonik, erain be-launeko giltzadurari; ta zutik ur parrastada artzeko oitura izanez

gero, orduan erabilli okalondoko ta besaingo giltzadurak jarri.

Ur-ontzian ez irrixtatu edo labaintzeko, jarri gomazko edo txorimukizko zerbait; ta, ur-ontzian sartu-aterak errexago egiteko, ezarri bi eldu-leku sendo orman, ur-ontziaren goi-aldean.

SOIN-MUGITZEA

Ez egon denbora luzean egoera batean, aldatu egoeraz: etzanda egonez geroz, aldatu albo batera ta bestera; exerita egonez geroz, berdin: noizik beinka, al ba'da, altxatu; ez egon, beintzat, bi ordu baiño geiago egoera batean.

Gauz astunak erabiltzen ez ibilli; eta ez ta ere bat-bateko mugi-aldi gogorrik egin, ezaguera galdu-ta lurrera ez erortzeko; eta praktikak edo galtzak eta gonak jazterakoan, eta baita galtzerdi-oiñetakoak jazterakoan, ere exerita egin, zutik lan egin gabe.

Lotarako oiak ere ez du biguñia izan bear; ta obe oraindik, artillezko edo lastaizko bigungarriaren azpian oi-zabal bat jarritz gero. Oia ez dedilla izan motz-motza edo anitz bean dagoena, ankaka lurrean jarrita, zutitu eziñik ez ibiltzeko; ta berez oia anitz motza iza-



nez gero, jaso puska bat oiaren lau anketan egurrak ezarriz. Burukia mea izan dedilla, edo batere burukirik gabe obe; ortara, burua, soinaren maillan berean arki dedin. Oian etzanda, belaun ta ankeko giltzadurak mingarriak eukiz gero, orduan gañeko estalki edo tapakiak aidean euki; anka bazterretan euki kartoizko edo olezko igogarri zerbait; ta iñoiz ere ez jarri belaun azpian iñolako biguingarrik.

Ibiltzeko esku-makilla bear izanez gero, ar-dezala ankan min artzen duen beste aldean, au da: eskubiko ankan min eukiz gero, esku-makilla ezkerreko eskuarekin artu.

Beroa beti ongarri da, bai bero-legorra, bero-bustia edo argi-indarrezko beroa; baiñan, geiegi berotu gabe; naikoa izaten da 37 bero-maillako neurria.

(Urrengo zenbakian azalduko da jarriapena)

Eriotza'ren Uzta

Eriotzaren igitagia ez dela gelditzen; bildu du, joan den urtean ere, bere uzta!

Milloika iltzen dira urteoro gizonak; ez ditugu denak (!) aipatuko, zenbait baizik, mundu zabalean ospetsuenak, gure Euskalerra'n oiñ-arrasto sakona utzi dutenak.

IRUJO'TAR MANUEL

Gure «Don Manuel», 1981'gnaren. aurreneko egunean, 89 urte zituela, joan zitzaigun mundu ontatik bestera. Ez, noski, lan galantarik egin gabe. Napparroa'ko Diputazioan, Madrid'ko Parlamentuan, Errepublikaren Jaurlaritzan, berrogei urteko atzerri-aldian, Alderdi Jeltzalean beti, eta, azkenean, Napparroa'ko Parlamentuan, makiña bat egintza on bukatu izan du bere bizi luzean! Jainkoak sarituko dio. Don Manuel'ek ez zuen gaur emen gure artean etsairik izango.

MONTZON'DAR TELESFORO

Alderdi Jeltzalearen Diputadu Madrid'ko Parlamentuan eta, gerratean, Eusko-Jaurlaritzaren ministro izana. Montzon'en izena oso eztabaidatua izan da gure artean, batez ere euzko ezkertiarren burutzan jarri zenez gero.

Idazle yayoa zen, eta olerkari dotorea. Jainkoak berekin beza!

PEMAN JOSE MARIA

Andaluzi'ko seme ospetsua; idazlea. Napparrek beti es-

kertuko diogu Xabier'ko Prantzisko Deunari buruz idatzi zuen antzerkia: «*El Divino Impaciente*».

JOSEPH PLA

Mende ontan katalanerak izan duen idazlerik onenetakoa, eta abertzale sutsua. Franco'ren zigorpean debekatu zioten bere liburuak katalaneraz argitaratzea.

AIZPUN'DAR RAFAEL

Napparroa'n gizon garrantzitsua. Errepublika aroan, Madrid'ko Jaurlaritzan ministro izana. Bere idazlanetan oso jakingarria da «*El carácter jurídico de la Ley Paccionada*».

«JUAN DE ITURRALDE»

Usabiaga'tar Yon, idazle bezala «*Juan de Iturralde*». Asko eta ederki idatzi zuen. Askatasun zaleen eta demokrazi zaleen eusle izan genduen «*Iturralde*» au diktaduraren urte beltzetan. Egia maitale porrokatua zen, eta egia argitara ateratzeko ez zuen sekulan beldurrik sumatu, eta atsedetik gabe ari izan zen lanean. Bere libururik ederrena: «*El Catolicismo y la Cruzada de Franco*».

Itzuek ziren «*Iturralde*»'ren ibilketa zuzendu zutenak: «Egia» eta «Askatasuna». Bere liburuak «*Askatasunak eskatzen duen egia indarrez*» idatzi zituen.

Euskaldunak Arjentina'n

ARAXES

Euskaldun asko izan da beti Arjentina'n, batez ere joan den mendiaz geroztik, millaka eta millaka joan bait ziren karlisten guduetatik igesi Arjentina-aldera lau probintzietako mutillak. Karlisten burrukak ez zuen mutil aientzat zentzurik. Eta pakezale sutsuak bait ziren gaiñera, Ameriketarako bidea artu zuten emengo zorakeritik iges egin naiean.

Arjentina'n, gora jaso zituzten beren buruak, eta maitagarriagoa egin, leendik ere an anitz maitagarria zen «euskaldunen izen ona». Zergatik eta nola? Lan egiñez eta itzari eustiz. Euskaldunen lana lan bikaiña izan da beti; eta «euskaldunen itza», balio aundiko gauza.

Arjentina'n euskaldunik geiena dituzten urietako bat, Nekotxea izenekoa da. Anjel Murga'k, orain dela eun urte, «panpetan» eraiki zuen uria. Murga ori arabarra zen jatorriz.

Joan den udazkenean, Nekotxea artan izanak dira emengo Euskaldunen izenean, uriaren 100'gn. urte-betetzea ospatzera joanak, Labayen Eusko-Jaurilaritzako ministroa, Alkain Donosti'ko Alkatea ta Linazasoro Tolosa'koa; ta «Goenatxo» arrijasotzaillea, Mendizabal eta Il'gn. Arria aizkolariak, eta soñulari eta dantzari ta guzti; guzjira 60 lagun.

Festa, zelai zabal batean lñaki Azpiazu, F. Araña. J. M. Agirrebaltzategi ta Xabier Roldan euskaldun apezek eman zuten Mezarekin asi zen.

Gero, aizkolariak arriturik utzi omen zuten jendea 9 minutotan kanako 8 onbor, egurrezkoak ez baiño koipezkoak ba'lira bezala, ebaki zituztelako. Arrijasozailleak, aurrean jarri zioten guzia altxa omen zuen. Tolosa'ko Alkateak



Gernika'ko Aritzaren semeari, Ama Euskalerrria'rengandik ooreak ta loreak.

dionez, Arjentina'ko dirua bakarrik «pesoa» ez omen zuen jaso aal izan. (Ez dakit badakizun, baiña gure leengo «indiano» aiek Amerike'tatik etortzen ziranean, ain gora zegoen zillarrezko «peso» ura, arras lur-jota eta eroria dabil azkeneko urte auetan).

Festa, «Eusko Etxea»'n, Enrike Gandia jakintsuak ertsi zuen itzaldi baten bidez; itzaldiaren gaia: «Garai'tar Yon, Buenos Aires uriaren sortzaillea». Izlaria bera ere, euskalduna da jatorriz: orduñatarra.

Gero, ezpatadantzariak, Gernika'ko Arbolaren ezkur batetik sortutako aritzaren aurrean, dantzatu ziren. Euskalerrria'ren omenez.

Aritz ura bi «onbu»'ren artean omen dago, eta une ontan gogoratu gure Pello Otaño'ren bertsoak:

Txabol ondoko «onbu»'ren laztana maitatzen zaitut gogotik...

Anitz ederra Arjentina'ko euskal dantzarien ekin-aldia; aipagarriak Buenos Aires, La Plata, Rosario, Mar del Plata, Tandil, Nekotxea ta, batez ere, Maipu'ko Dantzari-Taldeak.

Arkenean, denek gogoz abestu zuten «Gernika'ko Arbola».

Anai-artekeo bazkaria: 1200 lagun! Ta agur esan-eziña.

Agur, Arjentina, Euskaldunen bigarren Aberria!



Nekotxea urian, euskaldun guzien batzokia den EUZKO-ETXEA'n ospakizunetako bukaera gozagarria: anai-artekeo bazkaria. Ordu alai ortan 1.200 lagun bildu ziren bi Errietako ikurriñen pean. Azgazkian, Arjentina ta Euzkadi'ko Agintarien maia.

Amerika'ko Panpetan

Euskalerrri'ko lur maite artan,
jaio nintzan baserrian,
itzal aundiko intxaur arbol bat
dago gure atarian;
aren ondotik irtenda noiz-nai
maldako gaztañadian,
edo, sagarrik onenak jaten
luberriko sagastian,
arbol tartian bizitu nintzan
gazte denbora guztian.

PELLO MARI
OTANO

Txabol ondoko ombu laztana,
maitatzen zaitut gogotik,
eta biotza erdibitzen zait
joatian zure ondotik,
nere burura ekartzen dezun
eroimen gozuagatik.
Zure itxura nai det ikusi;
ez dizut eskatzen frutik!
Ni emen bizi naizen artian,
arren, egon zaite zutik!
Nere lagunik maitatuena
ombu laztana, zu zera;
argatik nator zure kolkora
ni malkuak izurzera,
iduriturik naramazula
atariko intxaurpera...
Beti izango zaitut goguan;
bañan, joan nai det osteria;
Euskal-lurreko zualpe artan
nere ezurrak uztera.

Denak utzita etorri nintzan;
lur au ikusi nai nuan!
Aritz tantaia, pago lerdanak,
nola ez izan goguan?
Orain, artzaintzan, Amerike'tan,
arrantxo baten orduan,
eguna igaro larrian, eta
jiratzen naizen orduan,
nere begiak gozatzen dira
aldameneko ombuan.
Ainbesteraño tristetutzen naiz
eremu zabal oietan,
arbolak, mendi eta errekek
falta diran zelaietan.
Non etorri? Ta eseritzean
ombu zar onen zañetan,
edo igota, osto tartian,
bere adar bikañetan,
ene amatxo! nik nola esan
zenbat gozatutzen detan?

BERTS LARIA

«OLERTI EGUNA» IGOTZ

Ez da zeregin erreza *poesia zer dan* zeatz eta meatz adieraztea. Literaturazko mende askoren ondoren, oraindik agertu gabe dago geure pentsamentuak eta sentipenak erakusteko darabilgun tankera berezi orri buruzko azalpen doi-doi. Ni ba'nindoake poesiaren muiña berezi ta mugatzera, au esango nuke: «*Ederraren karrasi da*». Didar edo intziri bat. Izan ere, eguzki dizditsu bat, zeru izartsua, itxaso zabala, mendi jaikia, lore bat bide-ertzean, aitona jarrita bere etxe-atarian, mutil gazte bat bere tallerean, eskolara doan aur bat, ama bat bere seme illarekin, gudara doan gudari bat, neskatz etsimendua.... ez dira naskiro poesi-gai? Barne-ikustea, intuitzioa ~~da~~ poesi-lana.

Olerkia, orrez gain, tristura ta illun-aldia osorik albo utzi gabe, pozaren inar da; oraindik obeki, gizartean argia ta beroa ipinteko zerbait da, gaurko gizartean bereziki, triste ta illun bait dago. Olerkariak bere koplakin, eder eta «karrasiz» adieraziakin, ona, ederra ta argia ekarri dezaioko gizarteari, munduari.

Auek dira urtero Larrea'ko *Olerti Egunean* aletu ta zeazten diran ideiak. Eta asko erran nai du onek, batez ere guretzat egun ori ospatzeko asmoz emen elkartzan geranontzat. Berrogei bat egiten dugun taldea gera, urterik urte, Kristo Errege egunean geienki, emen biltzen geranok osatua, olerki batzuk sariztatu eta poesiaz elkarrekin itz-egiñik, egun eder bat egiazko anaitasunean emanaz. Dirala 22 urte egiten dugu orrelaxe.

Aurrez iragarri oi da literatur konkurtso bat. Auxe izanik ere, Euskal-ria'n ospatzen diranetatik diruz exkas ta urriena, poeta geienik beren lanakin onaxe jotzen dutela, esan bear dugu: badu, noski, aomena ta gatz-piperra.

Epai-maia, urtero txandaka, sarituak izan diran poetak osatzen dute. Eta jaiak bere aunditasuna izan oi du beti. Lendabizi Meza Nagusi abestua, ta lagunakin, goizeko 11,30'etan. Altarakoak altaran, eta korukoak koruan daudela, aapaldi batzuk abesten ditu, asiera bezela, bertsolari batek; alkar meza ornitzen dutenak prailleak eta apaizak dira, andik eta emendik oneratuak. Auetariko batek aldarrikatzen du meza-itzaldia, olerkiak eguneroko ta arima-bizitzarako dauzkan atsegin, zoragarritasun eta indar bereziak goratuz.

Meza amaitutakoan, sarien banaketan esku artu nai duten guztiak, onetarako sagaratua bezela daukagun saloi zabalera aldatzen gera. Aurten, au da, Azarora'ren 22'an, igandez, gisa onetan jaitu genuen sari-ematea: mai-burua auek osatu zuten, Luis Arostegi, igaz leen-saria eskuratu zuena, erdian; Balendin Aurre-Apraz eskuian, aurten lirika saillean lendabiziko saria irabazi duena; Jose Mari Azpiri ta Ierro auek idazten dituna ezkerretik. KonkurtSORA iritxi diran idazlanen zenbaketa egin ondoren, sarituak izango ziran lanak, aurretik ikusi ta irakaurriak izan ziranak, bereiz jarri genitun. Gero sobreak iriki ziran, barnean bait zekarzkiten egilleen izen-abizen eta zuzenbideak. Au an zeuden guztien aurrean egin zan, jarraibide ona ematearren batez ere, gaur-egun bada milla oker, azpikeri ta iruzur sartu oi dira, jakiñez gainera, onako norgeiagoka ta konkursoetan.

OLERTI eguneko konkurtsoa iru sailletan nabatua egon oi da geienez: *Lirika saila*, poema saila ta *bertsolariena*. Aurtengo irabazleak izan ziran: Lirika saillean *Balendin Aurre-Apraz*, aurreko urteetan ere sail berdiñeko saria maiz irabazi izan duena; poema saillean, *Martin Ugarte*, Legazpiarra, eta aipamena *Agustin Beloki*'rentzat; eta azkenez, bertsolari deman, Ondarrrua'ko seme *Jose Mari Azpiri*'ren 12 berso-lan eder izan ziran sarigarri. Bakoitzari egokion diru-saria eman zitzaion txalo beraz lurrinduta, ondoren olerkari bakoitza bere lan saritua irakurriz.

Azkenik, bazkaitera orduko, *Paul Zamarripa* apaiz euskal idazleari *omenaldi* apala baiño biozkorra egin genion, itzaldi jakingarri batekin eta aren bizitz-zeaztasun ugari emanik. Txorierri'koa zan Zamarripa, euskal idazle oso jatorra, sei-zazpi euskal liburu utzi zizkiguna. *Datorren urtean*, J.L., oraintsu illa dan «*Tene*» -Muxika'tar Errobustene-, Deba'ko olerkari emakume argiari egingo diogu beste ainbeste.

ALDIZKARI

ONI GORATZA
-RREZ



Gure PRINCIPE DE VIANA'ri amaitu yako baraua, baita berakin zapaldu bere gorrotoaren biraua. Gure Euskera gaizkatutzea dau gaurko egitaraua. Euskaldun danok emon daiogun geure aldeko garaia.

Danok diñogu gauza zarren bat ondo zaindu bear dala; zaindu be asko egiten dira milloi-mordo bat an dala. Ortan umezurtz aurkitzen yaku gure Euskera makala... Izkuntza zar au ez al dogu, ba, monumentu nazionala?

Mundu onetan dagon guztia gure Jainkoak egin du, eta Jainkoak emondakorik inok ezin leike kendu; baiña bakoitxai emondakoa bakoitxak bear dau zaindu, norberetzako emondakoa bestek eztaian agindu.

Prantziatarrak prantses dira-ta, judegutarrak judegu, Euskalerrria'n jaiio giñanok olan euskaldun gara gu... Mundu ontako eginbear bat ondo bete nai ba'dogu, geure arduran dogun izkunta zaindu bearra daukagu.

Gure Euskera maitagarria bizi-bizi nai dogunak oindik arnasa badauka eta, gaur saiatu, euskaldunak, izkuntza au, bada, galtzen ba'yaku, danok gara errudunak, andi ta txiki guztiok baiña bat bera ez jakitunak.

Erderagaitik esaten dabe onena «*Made in Spain*», errazoiagaz baita jarri be oso goian eta apain, et'euskaldunok egiñagaitik geure Euskerearen zain, amorru biziz artzen daukue politikearen usain.

Kristo Jainko be erru bako zan, t'erru danak beretzako... Euskerari be orren antzeko gauza bat jazoten yako: gure Euskerak politikakin zer ikusirik eztauko, baiña beti da atxakiren bat erru bakoa ilteko.

Arkitektoa ei dogu orain bai zuzendari barria, guk langilleok gertatu daigun morterua ta arria...

Guztion arte jasoko dogu jauregi zoragarria. Bere izena au dau izango: EUSKALDUN-EUSKAL-ERRIA.

BASILIO PUJANA

XENPELAR

EGI'TAR BI

Bertsolari itza aipatzean, euskaldun bertsozale guztiei *Xenpelar* errederiarra datorkie burura. Errederiarra?, ala oiartzuarra?, *Xenpelar* non jaio zen ez bait dakigu. Errederi'koa zela esaten dute paper batzuek; Oiartzun'goa zela besteek.

Euskalerrri'ko gauzak zeatz jakiteko, *paperi* garrantzi gelegi ez zaiela eman bear erakusten digu paper-nasketa orrek. Euskaldunentzat ez dute iñoiz ere *paperrek* balio geiegirik izan. Itzak, bai! Itzari ematen dio euskaldunak benetako balioa.

«*Xenpelar*» izeneko baserria Errederi'n dago. Baiña, *Xenpelar* bertsolaria Oiartzun'en izan zen bataiatua. Eta gero ere, Eliza'ko paper guztiak Oiartzun'en jaioa zela esaten bait digute, badirudi Oiartzun izan zela gure bertsolariaren sorterrria.

Ia bere bizi guzia Errederi'n igaro zuelako, eta bertso-lan osoa ere erri ortatik egin zuelako, bildurrik gabe aitortu genezake bertsolari bezala Prantxisko Petriarena Berrondo, *Xenpelar*, Errederi'koa dela. Errederiar agertzen zaigu bera ere Iparragirre'ri egin zion «desafioan»:

**Atoz gure kalera,
baserriar legera,
musika oiek utzita;
Errederia'n bizi naiz eta
egln zaidazu blsita.**

Jaiotzez oiartzuarra, bizitzaz errederiarra, naparra izan zen odolez eta jatorriz, beintzat, aitaren aldetik.

Bere aitona, Juan Kruz paper batzuetan, Joakin Kruz Petriarena besteetan, Sunbille'koa zen; eta aita, Joxebernardo Petriarena, Arantza'koa. Ama, Maria Rita Berrondo, naiz paper batzuetan Errederi'koa zela esan, oiartzuarra zen seguruaski, ala diote beintzat paperik geienak. Ez dietela euskaldunek *paperi* baliorik eman! Itzak balio izan duela, beste ororen gaindik gure Euskalerrri ontan! Ez dutela, beraz, Euskalerrri'aren edestirako (istorirako), balio aundirik paperak!

Ama oiartzuarra..., oiartzuarra zen, gizon eginda, *Xenpelar*'ek artu zuen emaztea ere: Marijoxepa Retegi. Andregai ote zuen emakume au, Oiartzun'go neskak goraiatzeko, bertso ezagun aiek kantatu zituenean?:

**Neskatxa eder, balienterik,
balidin gustatzen ba'zaizu,
etorri zaitetz Oiartzun'era,
emen arkituko 'Itzuu.
Kale eta baserri,
kolore zuri-gorri,
ederrik pranko ba'dezu.
San Esteban'ez erromeriya,
ikusit nai ba'dituzu.**

«*Baliente*» orrek buruauste pixka bat eman izan die euskera ondo eza-gutzen ez duten bertsozale kaletarrei, itz orrek gure artean ez bait du erderaz duen zentzu bera. *Baliente*'k gure artean «baliozkoa» esan nai du, latinezko *valens*'ek bezala, «*balio aundikoa*». Ala ikusten zituen *Xenpelar*'ek Oiartzun'go neska gazteak: balioitsuak, «balio aundikoa».



Xenpelar, Valverde margolariak ikusita.

Karlistak eta Liberalak gudan zebiltzen 1835'garren urtean, *Xenpelar* jaio zenean. Borrokalarien artean eta borrokalaren erdian jaio zen gañera, «*Xenpelar*» baserria karlisten eta liberalen artean bait zegoen. Karlistak, Oiartzun'en; liberalak, Errederi'n. Baserria bera karlisten eskuetan egon zen ia gerrate guzian. Aurreko muñoan euki zituen, ordea, beti liberalak. Ez zitzaion noski Prantxisko txikiari tiro-soiñurik faltatu! Orregatik izan ote zion gero gerrari ainbesteko gorrotoa?

**Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakearen alde.
Zeñek nai duen galde,
berari tira dale!
Bala bat sartu buruan!
Aspertuko da orduan,
Gerra nai duen guzia...,
berari kendu bizia!**

Mutil-kozkor zela, Oiartzun'era joan zen izeba baten etxera erdi-morro. Karlisten gerrateak Euskalerrria zeoro deseginda utzi zuen da, latza izan zen orduango jendearen bizia. Lana ugari eta ezertaroko dirurik ez. Gogorra izan zen *Xenpelar*'en gaztaroa ere, Egurrola baserriaren morroi.

**Amar urteko nintzan
oteketan asi;
galanki nekatu ta
gutxi irabazi;
aberatsa izaten
ez nuben ikasi.**

Ezkundu ta geroz, Errederi'n bizi izan zen eta «*Fabrika Aundi*» esaten zioten eun-olan lan egin zuen; kapataz izatera iritxi omen zen an.

Ola berean lan egiten zuen *Muxarro* ere. *Muxarro* bertsolaria oso gizon aundia omen zan. Burua atzeratu, gora altxa, eta goitik bera begiratzen omen zion jendeari. Orregatik, «*muxu arro*» jarri zioten izena, ta *Muxarro* gelditu zitzaion bere denbora guzira. Baña izatez, oso gizon umilla omen zan». (Itz auek A. Zabala'renak dira, eta eusko bertsolarien berri jakin nai ba'duzu, A. Zabala'ren «*Auspoa*» bildumako liburuak gaztiatzen edo errekomendatzen dizkizut, irakurle, eta Kardaberatz Bazkuna argitaratzen ari dan Lekuona'ren liburuak).

Muxarro'k pipa-artzalle porrokatua izatea beste akatsik ez zuela esaten digu Lekuona'k, eta olako zokoetan ere izkutuan, noiz-beinka, pipari su ematen ziola ixillan. Bein, ordea, *Xenpelar*'ek, kapatazak!, arapatu zuela pipa maiteari tiraka. Galazia egon berri izan-orduetan pipa-artzea! Larri, *Muxarro* gizajoa, biurkeri artan arapatua izan zelako. Larri *Xenpelar*, adiskideari itz mingarri batzuk esan bearrean arkitzen zelako. Bertsolaria, ordea, bildurrik gabeko gizakumea omen da, naiz gizon bezala bildurtia izan. Ala, bertsotan mintzatu zitzaion *Xenpelar* eta bertsotan erantzun zion *Muxarro*'k, ura bertsolaria ona ba'zen, au ere -ikusit dezakazunez- ura bezain ona bait zen.

**Aizak, i, Manuel mañontzi:
urrengorako goraintzi...
Ez al akiken or pipa artzia
etzela lizentzi?**

**Oitura txar oiek utzi,
bestela ezurrak autsi...
Giza-legia nola biar dan
ezin erakutsi!**

**Nik badet giza-legia,
Prantxisku'k bañon obia;
beste tatxarik etzait arkitzen,
arrote pobria.**

**Nik jeniyua noblia,
kortesi pare-gabia...**

**Neri ezurrak austeko nun dek
abilidadia?**

**Ziri bat sartu dit neri;
ara nik ere berari...**

**Abilidade gutxi duela
ez esan inori.**

**Azala daukak ik lodi,
mamirik ez duk ageri...**

**Ezur igarrak austen zallak ttuk
bazekiat ori.**

**Kunplitzek ire ordenak,
ez dik kalteko nor denak;
bestela parra egingo ditek
begira daudenak.**

**Ik nun daukazkik kemenak
menderatzeko gallenak?
Ezur igarrak ausitzen dizkik
indarra dubenak.**

Xenpelar'en garaiekoak ziren beste bi gizon ospetsu: Iparragirre eta *Bilintx*; iruetan bertsolaririk bikaiñena *Xenpelar* izan zen. Ala ta guztiz, *Bilintx* ta Iparragirre -Iparragirre batez ere- ezagunakoak dira gaur egun *Xenpelar* baiño. Ta ona zergatik:

Iparragirre'ri politikaren aldetik datorkio ospe guzia. Bera izan zen Lege Zarraren aldeko borrokan euskaldunen aintzindari. Berak sutu zituen euskaldunak. Berari eskerrak, neurri aundian, ez zuen Euskalerrria'k bere nortasuna galdu. Orregatik ez da gaur Euskalerrria'n Iparragirre'ren entzuterik ez duenik.

Bilintx -*Bilintx* gozoa!- bertsolari on-onenetakoa izan zen; baiña, bertsolari baiño geiago, egiazko olerkari, poeta. Jende eskolatuaren eta erri aundietako euskaldun zerbait-ikasien olerkari-bertsolaria. Eragipen edo influentzi aundia izan zuen *Bilintx*'ek Euskal-Olerkiaren sendoketan. Atzo-

atzoko, *Lauaxeta*, *Lizardi*, *Orixe* eta beste olerkari aundiataraino irixten da *Bilintx*'en itzala.

Baiña, bertsolari bezala, aundiago zen *Xenpelar*. Baserrietako nekazarientzat eta mendietako artzaiantzat, irakurtzen eta idazten eta erderaz itzegiten ez zekiten euskaldun guztientzat, *Xenpelar* zen bertsolari guzien erregea. *Bilintx* menderatu zuen. Iparragirre'k ez zuen *Xenpelar*'en erronka edo desafioa jasotzeko gaitasunik izan.

Ain zuzen euskal bertso-lanetan, *Xenpelar*'en erronka edo desafio ura dugu pitxirik ederrena.

Iparragirre aipatzen omen zion mundu guztiak Errenderi'ko karriketari *Xenpelar*'i: «Iparragirre dek aundia!» «Iparragirre'k eskola ere oso ona omen dik!» «Musikarekin kantatzen omen dik Iparragirre'k!».

Aspertu zen *Xenpelar* eta, bein batean, sagardotegiren batean seguruaski, Iparragirre'ri erronka boteaz erantzun zien, aspertzeke Iparragirre goratzen ari zitzaizkion inguruko adis-kide aiei:

Iparragirre abilla dela askori diot aditzen. Eskola ona eta musika... Ori oiekin serbitzen. Ni ez nazu ibiltzen kantuz dirua biltzen, komeriante moduan; debalde pesta prepatzen det gogoia dedan orduan.



«*Xenpelar*»'en baserria utsik gelditu zen; mututurik ikusteak pena ematen du.

«Eskola ona eta musika... bertsolaria...», gañera. Gu ere zerbait, izango gera ola ornitzen ba'gera. Atoz gure kalera, baserriar-legera, musika oiek utzi-ta. Errenderia'n bizi naiz eta egin zaidazu bisita.

Gaurko bertsolariek asko eta asko zor diote *Xenpelar*'i; batez ere, puntuak ongi aukeratzeko ardura. *Xenpelar*'en aurreko bertsolariek, gaurkoek baiño askozaz era baldarragoan erabiltzen zituzten puntuak, azkeneko letra utsarekin konformatzen zirela, maiz aski. Baita bertsolaririk aundienek ere. Ona emen, *Etxaun* zuberotarraren bertsoetatik artuta «*Sohuta*'ko ezteietan» deritzan asiera:

Barkox'erik horra egün *Sohuta*'ra, ene herritar diñen felizitatzera, ezagütürrik ezi merexi zuela holako süjet nublek mahañin bi kopla.

Oartu al zera puntu oien txirotasunaz? *Sohuta*'ra, felizitatzera, zuela, *kopla*. Orrelako zabarkeria nun-nai arkituko duzu *Etxaun* bikain aren bertso-lanetan. Ona, bere «*Bi Ama-Alhaba*» izeneko kantuaren lenengo bertsoko puntuak: *alaba*, *ardura*, *zena*, *xaharra*; eta kantu ortako bertako bostgarren bertsokoak: *xarmanta*, *zopa*, *lotsa*, *kota*. Gauza pobregorik, txiroagorik, aurki al diteke? Ta ori... *Etxaun*'ek bat-batean ez, baiña patxadaz eta pape-rean idatziz, bere bertsoak tajutzen zituela!

Xenpelar'ek, naiz bere bertso guztiak bat-batean eta aotik-ortzera sortu, ez du sekulan orrelakorik egingo. *Xenpelar*'ek, azkeneko izkia ez eze, azkeneko silaba osoa eta azkeneko silaba orren aurreko izkia ere artuz, osatzen zituen puntuak; eta baita azken-aurreko silaba osoa ere artu izandu, zuen maiz aski, bertsoaren gozotasuna aundiagoa izan zedin. Puntu ederrak, puntu doñutsuak, borobillak, atsegiñak, belarrirentzako loxintxagarriak. *Xenpelar*'ek ez zekian Iparragirre'k bezala, musikarik. Ez zuen bearrik ere, bere bertsoen doñu eztkoi bixigarria... naiko musika bait zuen!

Xenpelar'i eta *Bilintx*'i, baiña bereiziki *Xenpelar*'i zor dio euskerak aberastasun ori.

Karlisten bigarren gudaren azkenean izugarriko izurria, pestea, izan zen Euskalerrria'n: baztanga-izurria. Errenderi'n 1869'an asi omen zen —paperek diotenez— izurrate ori, eta jende asko eraman zuen beste mundura. Oien artean bat, *Xenpelar*; eta beste, *Xenpelar*'en arreba Maria Luisa; eta *Xenpelar* baiño leenago, bere emazte Marijoxepa.

Marialuisa, aur-egiteko egunetan zegoen *Xenpelar* gaizki erori zenean, eta naiz kutsuaren arriskua anitz aundia izan, anai zaintzera joan zen, eta an kutsutu.

Marijoxepa 1869'ko Urrilla'ren 25'ean il zen. *Xenpelar* bera, *Abendua*'ren 5'ean. Egun berean, arratsaldean, erditu zuen Marialuisa'k neskato bat: Daniela; baiñan, ama bezala, baztangaz kutsatua au ere. Etxean bertan izan zen bataiatua; andik zortzi egunera il zen neskatoa, eta bigaramonean ama Marialuisa. *Abendua*'ren 18'an.

«Etxe berean —dio A. Zabala'k— bati elizekoak eta besteari bataioa... Osaba, gela batean, gorputz; arreba, aldame-nekoan, aur-egiteko antsietan, eta andik puska batera aur jai-berriaren negarrak...» Ta zortzi-bederatzi egun geroago, aurtxo jai-berria gorputz, eta gorputz, aren ama «balientea» ere.

Xenpelar maiz oroitzen zen «beste munduko juizioa»z bere bertsoetan, eta maiz ere egin zuen *Xenpelar*'ek une artarako aurretik otoitz.

Danon anima izango bait da Tribunalera deltua, damu det, Jauna, blotz guztirik Bedori ofenditua.

Al, zeñek leukaken anima garbia, zeruan ikusteko zure arpegia. Oraldaño egin det zenbait pikardia; arren, itzazu nitzaz miserikordia.

Al, nere Jesus, eskatzen dizut grazi au errematian: konbeni da-ta, sartu galtzazu zeruetako atian.

Aldresbeskeriak

XENPELAR

Arano'n sortu dira amalau nobiyo: zortzi konpiteruak, sei botikariyo. Seiña kintalekuak amar armariyo, gizon batek «a pulso» bizkarrian iyo. Arrazoi oni kontra nork egingo diyo?	Gizon bat ikusi det irureun urtetan mariñel dabillega ontziko soketan: espartziñaren ordez txalupak anketan; aren aitona, berriz, itxasora uretan. (<i>Puntu bat galdu zaio</i>).
Itxasuan ari dira arbolak aldatzen; itxuak ikusi du etxe bat erretzen; ankamotzak badaki bidian korritzen; mutua deadarka jendiari deitzen; gorra ere an zegoan guzia aditzen.	Txantxangorri batenak sei libra tripaki; txingurri batek berriz zazpi arto jaki. Baiak iriña iyo, errotak iralki, labanak erre eta labeak ebaki... Oyen madria nun dan <i>Xenpelar</i> 'ek daki.

GU GERA EUS-

KAL ERRIAK

Iya guriak egin du... Badegu zeñek agindu; ez oraindik umildu! Elkarrengana bildu; gerra nai duben guzia, berari kendu bizia.

Gerraren billa gau t'egun, Gaitzak gerade umiltzen etsaiak arturik lagun. Arrazoi ote degun, edo zer datorkigun? Asitzerako, pentsatu fusillak nola dantzatu!

Ez naiz ni gerraren zale, baizik pakearen alde. Zeñek nai duen, galde: berari tira, dale! Bala bat sartu buruan, aspertuko da orduan...

XENPELAR

Gaitzak gerade umiltzen eta pakean unitzen. Ez da errez ibiltzen anaiak elkar iltzen, zer dan entenditu gabe; ortan galduko gerade!

Gu gera iru probintzi! lengo Legeri ez utzi! Oieri firme eutsi, naiz anka bana autsi! Jaioko dira berriak; gu gera Euskal Erriak...

Itzala izan deiogun

Biotz aundia eta beso zabalduak nappar jatorrak ditu, beti azalduak. Urte auetan egon gera zapalduak, lengo ausardiaren kementa alduak; baiña, Euskera zarra ez gaude galduak.

Aldizkari au zegon oso ixildua, batzuen zitalkeriz azpira amildua. Berrero geiengoa batera bildua, bakoitza bere itzari arduraz eldua: gogozko zaiolari duan bidaldua.

Idaz-gelan bezela euskal sukaldian, irakurri nai dunak ortxen du, aldean. Iruña'ko Aldundiak yartzen du bidean; Amerike'taraño dijoa aidean, gure odolekoak asko bait daude an.

Europa'n bazter baten agertzen denari: -Itzala izan deiogun nappar erriari, sortutzen diralako ainbat izkuntzleri. Obea da egia esatea garbi: izan da, ta izango da Euskeraren kabi.

Gure aiten aitonak euskaldun izanik, emen ez da arkitzen besteren izenik. Aien aurretikako ezer aztarrenik: ibai, ordeka, mendik duten bazterrenik danak, euskal bataioz ikusten ditut nik.

Ez dakit dan emana edo lapurtua, bere osotasuna dago apurtua; lenago aundi zana txiki biurtua; atzerri aginteen mende beartua; Ego ta Ipar aldeak erdibana artua.

ALBIZU'TAR GILLERMO'K

AURRAK OMENEZ GURASOEN

«Maritxu nora zoaz...» doiñuaz.

Esaidazu anaitxo gu nondikan gatoz? Gu gera gurasoak sortutako larros. Maitasun zintzo baten atsegiña ta poz? Eskerrak damaiegun biotz eta gogoz.

Gure ama maiteak baita gure aitak bizi eman zlguten biotzetik nalta, orain seme zintzoak geran aldetikan eskerrak damaiegun Jauna'ri otolka:

Zaindu ditzala beti gure gurasoak berak izan bai-dira Jainkozko besoak, emen izan gaitezen zerutar usoak egaz alaitutzeko gure etxeokak.

UXOLA

GAURKO ZENBAIT TXOPERREI

Zenbat eriotz trixte bide baztarretan denok ikusten degun gaurko egunetan. Kontzientzirik ez da ainbat txoperretan, berebillak ez dabiltz legezko martxetan, ta gero luto beltzak eundaka etxetan.

Txoper askok gelegi edanaz alkola erabat galtzen dute buruko kontrola. Era orretan zuzen ezin jun iñola, ikusi gaitz gogor au indarrez dagola, ta orrek ekartzen du eriotz odola.

IBAI-ERTZ

Denok ibil gaitzen buruz pentsatuta kamiñoa denontzako egiña degu ta. Asko ortxen dabilta gauz ori aztuta edan gaiztoarekin zeoro nastuta. Zer aurrerapen dago bizitzak galduta?

Zuen eskubiari arretakin eutsi ta legen agindua etzazute autsi. Iñor jotzen ba-zute biar edo etzi berari laguntzera kotxetikan jetxi ta zakur bat bezela kunetan ez utzi!

Auxen artu zazute txoperrak kontuan: Arrikkua dagola aurreratzekean. Txistu eta kantari sekula ez jua lagunurkoa beti eduki goguan. Denok bizi nai degu oraindik munduan!

Desgrazi ortan iñoiz gertatzen ba'zera, biotzez laguntzeko ez egin atzera. Ori ez egiñean gizona ez zera ta deitzen ba'dizute juizio batera, etzazu deklaratu Judasen antzera!

Raya eta diskoek onartutzen jakin kontuz erabiliaz zuen martxarekin. Bolanteari eutsi sendo bi eskuekin kontu gutxi kontatu albokoarekin ta beti ez piatu kotxan prenuakin.

Dezun Seguroakin zu ez errukitu berak milloika peztak poltsetan baditu. Naiz ta abogaduak ura defenditu ark gezurrak esatek etzaitzez arritu, zu beti egiz mintza ori da meritu!

ERRONKARI'KO USKARA

JOSE
ESTORNES LASA
JAUNARI



Erronkari'ko uskara, mendian zagon ixilik... Oi, jakintsun Nafartarra, ez duk, axola gaberik, Gayarre'n mintzai ederra utziko leizetan hilik! Gaizo uskara zaharra, berriz ibil hadi xutik, ta jaldi hadi mundura! Oiarzunak, bortietik, Izaba'tik Iruña'ra, bazterrak iratzarturik, Estornes-Lasa'ri: Gora! Biziko baita, geroztik, Erronkari'ko uskara.

GARAZIKO MANEX

Don Nemesio Etxaniz (G.B.)

Ez gaitu batere arritu D. Nemesio'ren eriotzak. Aspaldixko eri zebillela, osasunez makal, eta aldarteaz illun bagenekigun. Ain alai, umoretsu ezagutu genuen adiskide maitea etxe txokoan zegoan kabian etzanik dagon txori zaurituaren antzo. Ez genituen ez geiago entzuten aren txorrotxio, fililika txaramelak. Kantari berritsua izandakoa isildu zan. Ainbeste kanta, ta bertsoaldi pozgarri sortu zituana, gaitzak joa muturik arkitzen zan. Idazle txukun eta irudimentsu onenetako bat, bazterrean aztuta. Itz lauz ezik D. Nemesio izan zan olerkaritzan, ots! azken modako kanta-berritan lenengo leiatu zana. Nola aztu aren «Kanta-Kantari» liburuxka zoragarria? Emen ikasi zuten Lurdes Iriondo, Benito Lertxundi, Lete eta beste askok euskal abestien tankera berria. D. Nemesio'k gaztedia maite zuan eta janari egokia eskeñi nai izan zien euskaltasunean eta abertzaletasunean bide zuzenetik joan zitezen. D. Nemesio, gauza guztien gañetik, apaiz euskeltzale ta jainko-zale bait zan, eta ez zuan beste elbururik izan bizi guztian.

Ausarta ere bai justiziaren alde, batzuei arin eta jostari-egia ote zan zerizkion. Poza zabaldu naiez ari izan zan betibere biotz aundiz bultzata. Ume aundi bat gaztearotik zartzaroarte. Naigabeak beretzat gordetzen zitan eta ez zion iñori laguntzarik ukatu denbora zailletan. Itza atera ta arpegia ematen jakin zuan gerrate ta ondorengo urte latzetan. Bearrean zegonari eskua luzatuz. Benetan apaiz onbidetsu baten bidean ibilli da beti, eriotza billa etorri zaion arte. Idazlan, liburu, olerki ta itzaldi asko utzi dizkigu euskeraren alde egiñak; eta leku goitar bat merezi dute gure literaturan. Auen balioa kritikariak goiaipa dezatela, asi diran ezkerok.

D. Nemesio, azken urteotan Donostia'n bizi zana, Azkoitia'ko bere jaioterrian eortzita izan da, eta an artuko du atsedean, egun aundi arte. Lagun eta adiskide izan giñanak ez dugu bereala aztuko.

Oraingoz, oroimen omenalditxi au opa diogu ta Jainkoa'ri otoiña zuzentzen ainbeste ordu ats egin; eta alkarrekin lur ontan bizi ta gero Zeru Goian espero gaitzala, gure txanda etorri arte.

IBALAN

AURTZOEN TXOKOA

Egiaren ondorioak (Ipuia)

Amaia neska on bat zen; pixka bat berritsua, baiña alere, oso ona.

Egun batean, eskola ondoren, errekarara joan zen. Errekan, espartziñak kendu zituen eta erori egin zitzaizkion errekarara. Negarrez asi zen, eta orduan errekarak esan zion:

–Zergatik egiten duzu negar?

–Espartziñak errekarara erori zaizkidalako.

–Nik artuko dizkizut.

Eta txarolezko zapata batzuk artu zituen.

–Oiek al dira zure oiñetakoak?, galdetu zion errekarak.

–Ez; zaarrak dira, esan zuen Amaia'k.

Orduan, errekarak zapatak polit batzuk ekarri zituen.

–Ea, oiek? galdetu zion neskatxari.

–Ez; nereak oraindik zaarragoak dira, erantzun zuen.

Eta azkenean, espartziñak artu zituen.


–Oiek al dira?

–Bai! Orixek!

Eta errekarak esan zion:

–Tori, ba; iru zapata pareak zuretzat dira, egia esan dezulako.

ITZIAR FAGOAGA IRURTIA (Leitza)



Tolosa

IÑAUTERIAREN EDERTASUNA

UXOLA

Iñauteriaren edertasuna! Jaiaren alaitasuna! Giro onekoen anaitasuna!

Iñauteria da, iñundikpait, illunpetik argitara ateratzen denaren poztasuna. Uste dugu, gure aurrekoek negu luzea leitza-zulo barruan igarorik, udaberriko argitara azaltzen zirenen jaialdia dela. Illunpea iltzearren enborren su-garren argi txepela utzi eta eguzkiaren argi ederrera azaltzen zen gizakiaren agerpen bat zela.

Litekeana da ere, onegatik mozarrotzen zirela arpegia estalirik, egunaren argiak begi-niniak miñetan ipiñi ez zitzen. Gaur egunetako Iñauterietan ere, iñork ez daki oitura oni jarraitzeagatik-edo, txantxoak geiago estaltzen dute arpegia egunez, gabaz baiño.

Pozgarrirako eman zigun Eguzkia gure Alguztidunak. Beraz, gaurko gizakiok poztu gaitezen gure esker-ona eta alaitasuna eskeiñiz. Onetarako sortuak dira Iñauteriak. Alaitzeko jatorrasunean, adiskidetasunean eta anaitasunean.

Ez gaitezen Iñauteriaz balia urkoari gaitza egiteko, laguna engañatzeko, gu-txiago euskaldun emakume garbi panpoxari.

Denok alai bear dugu ibilli, geurok eta inguruetako errietatik datozenek. Zerbaitegatik Tolosa'ko Iñauteriak ospea irabazi du. Emendik aurrera ere, jarraitu dezagun ospe eder au zabaltzen gure jokabide on eta alaiarekin.



SUKALDEKO TXOKOTIK

Qué «casherada»!

PRAXKE

—Kaixo, Praxke! Nora oa farol orrekin, neska?

—Egunon, aspaldiko Pilixi! Etxera, noa, farola eramatera noa. Ez al zaizu gustatzen nere farola?

—Etzekiñat neska. Zarra bai, naita-nai-ez zarra izanen dun; bainan, erdoi ta guzi, polita izan al dai-teke? Ara, eskuak zikintzen zetin!

—Ez da atzokoa nere farol gai-xoa.

—Eta zertako dun farol ori, Praxke?

—Ez al dakizu ze egun den etzi? Ez al zera oroitzen biar Santa Ageda bezpera dugula? Aztu al zaizu oitura zarra, Santa Ageda bezperan etxez etxe ibiltzea dela? Bein baino geiagotan elkarrekin ibiliak gera, bada!

—Neska, neska! *Por Dios! Qué atraso!* Len bai, neska; bainan, orain gauza oriek? Naiago dinat askoz ere, kafetegi batetan sartu-ta, katilu bat kafe patxadan artu. Santa Ageda'ko dunduri aspergarri aiek, Praxke? Non ao, neska?

—Biar ortxe aterako gera talde osoa, gizonak, emakumeak, gazteak eta umeak. Gure farolak eta makilak artuko ditugu eta ederra izango da. Gainera, abestiak berritzea ederki kostatzen zaigu. Neurkera ezberdinetako bertsoak dira eta, makilaz zanpatakoak, bear de-nean ematea oso da gauza zaila. Ala ere, ikasi dugu ongi eta txistulariak aurretik ditugula, ortxe ibiliko gara.



—Txistulari ta guzi? Ortako? *Qué atraso! Por Dios,* neska! Oraingo kantante ta konjuntoen aldean, Santa Ageda abestiak toki onen gelditzen ditun! *Qué caserada!*

—Pilixi, oitura zar oiek gure nortasunaren agiri dira.

—Baña zertarako ditun, Praxke? Probetxurik bai al ditun? *Por Dios!* Au ezin asmatua! Inauteriak sikera juergarako balio ditun. Oien aldekoa naun ni ere. Aguro ditun eta al den apañena jarriko naun, eta sanba edo zerbait elegantea dantzatzuz, bapo ibiliko naun. Baña Santa Agedatakoak, eta Eguberri-takoak, eta gure erriketako beste lengo oitura asko, zertarako gorde bear zetinau?

—Begira, Pilixi. Oitura zarrak, Santa Ageda'ko abestiak eta beste olakoek, gure folklorea osatzen dute eta folklorea kulturaren zati bat da. Orregatik dute balioa. Eta gure ondorekoek aintzat artzea nai ba'degu, lendik geuk saiatu bearko degu. Oitura zarrak gordetzeko eginkizuna bereziki etxeoandrearentzat eta amarentzat da.


—Ez, neska! Gaur egun gauza egokiagoak sortu ditun, eta lengoak pasatu itunen. Gauza zarren bidez, zartu besterik ez dun egiten, eta gazteak bear dinagu izan eta irauin, Praxke!

—Alferrik ari gara, Pilixi. Kultura gaiak aundiegi eldu zaizkizu, eta obe izanen dugu pakean uztea.

—Noski ba, neska, itxurik ez din eta... Biar, beko kafetegitik zuei begira, a ze parrak!

—Adio, Pilixi; bejondizula! Eta beste bat arte.

Trufak



BEAR DENA

«Suchard» izeneko BI liberd txokolate.
Esne kondentsatua pote BAT.
Eta gurin, EUN gramo.

NOLA EGIN

«Baño Maria»'n urtu-erazi dena, eta naasi edo oratu IRU gauzak.

Otzgalluan (frigorifikoa) eduki IRU edo LAU orduz.

Gero pilotatxoak egin eta «kakao» edo edozein txokolate auts-xerbi-letan pasatu.

Erreza eta goxoa duzue.



• BERRIZ - ERRI •

Baztan

EGUBERRI

«Baztandarren Biltzarra» Elkar-teak antolaturik, yoan den Eguberri garaian ere egina da Kultur Hamabostaldia, Eguberri bezperein hasmenta emanik. Gabon egunean Olentzero ibilia da, Elizondo, Iru-rita eta Oronoz'ko karriketean eus-kal kantak eta txistu sonuakin herri hoieri Eguberri giro goxo bat ema-nik. Elizondo'n Ikastolako haurrak beren irakasleekin eta Korala ere ibiliak dira ospakizun hortan ga-bon-abestiak kantatuz, Olentzero'ri ohore haundia eman diotela. Ai-patu ditudan hiru herrietan Olen-tzerok arrakasta haundia izan du. Gure goresmenak ohitura jator horren antolatzale eta yarraikitza-leei ere. Kultur hamabostaldi hor-tan eginak dira, lasterketak, hitzal-diak, filmak eta antzerkia ere.

Egin diren hitzaldietatik merezi du aipatzea Riezu'ko Aita Jorge Kaputxino ospetsuak emana, Aita Donostia zenaren nortasuna eta bere eginkizun goresgarriak agertu zituela.

Bi antzerki erakutsi dituzte. Er-darazkoa Iruñe'ko «Lebrel Blanco» Taldeak emana. Oiarzun'go «In-tsisu» Taldeak aurkeztu du «Ipa-rragirre Amazonro» antzerki aipa-garria. Bi antzerkietan yende guti, batez ere euskarazkoan. Oiar-tzun'go antzerkilariak erakutsi du-tena aski antzerki ederra eta ongi egina, oiarzuarrek agertu baituzte beren doaiak, lanean ongi eta so-lasean ere garbi eta zuzen euskara jator batean. Penagarri da euskal antzerki hortara hain yende guti biltzea. Erran dezagun ere astele-guna zela eta gaueko hamarretan, eguna eta ordua ere txarrak yen-dea biltzeko. Igandearekin eman ba'lute eta behar den tenorean, nik uste arrakasta haundiagokoa uka-nen zuela. Ordu txarra erran dut bai, baina hala izanta ere euskal zaletasun gehiago ba'lego, auni-tzez yende gehiago behar luke izan «Intsisu»'ren Agerraldian. Ez du balio espantuka aritzea gero egin-kizunetan motz gelditzen ba'gara.

Filmak Eguberri egunean hasi eta igandero eta bestero Errege ondoko igande arte. Erakutsi di-tuzten filma guziak erreliste haun-dia izan dute, bereziki «La fuga de Segovia», Filma hau bortsu aldiz erakutsi zuten eta bortsu funzone-tan sala bete bete.

«Baztandarren Biltzarra» Elkar-teak antolatutako ospakizunak ongi bururatu dira.

KORALA

Berriz ere Elizondo'ko Korala ai-patzen dugu hitz lerro hoketan. Urtarrila'ren 22, 23 eta 24'ean gure koralak grabatu du Aita Donostia zenaren «Misa pro Defunctis» izenburua daukan defuntoen meza aipagarria. Hortarako Madril'eko «Casa Zafiro» delako dizka etxea etorri da eta baita ere lana ongi bururatu Koralaren kantaldia zuzen hartuz. Lan nekosa izan da, kanta eta kanta ahalik eta meza zuzen eta garbi atera arte. Lan nekagarria bai, baina onuragarria, Aita Do-nostia'ren defuntoen mezak merezi duen bezalako zaletasunarekin egina baita. Aita Donostia'k bere eginkizun ospetsu hau hil aintzi-

nean eta duela hogeita bortsu urte eta gehiago hain segur antolatu zuen. Gure donostiar kaputxinoa oraindik bizi zelarrik, Elizondo'ko Korala hasia zen meza ikasten; eta hil ondoren, Donostia, Zaragoza eta Lekarotz'ko kaputxinoen eli-zetan, Aita Donostia'ren ohoretan kantatu zuten. Hogeita bortsu urte luze yoan dira eta orai berriz ere «Misa pro Defunctis» delako obra miresgarria agertzen dute mun-duaren aurrean eta dizkaren bitar-tez lurralde guzietara barreiatu da-din, Aita Donostia'ri gorasarre hunkigarria emanik, zeruan ere donostiar kaputxino ospetsuaren edesti eternala aditu dezaten.

MARIANO IZETA

Ultzama

ABERE-EBASKETAK

Ez da gaurko afera gaur gerta-zen ari zaiguna. Egun auetako gertaerak zenbat aldiz oroit-ara-zen naute gure amak kontatzen dizkigun gauzetaz!

Bera txikia zenean, abereak ebasten zizkieten mendi eta bor-detatik. Aunitzetan aita semea bi-daltzen zuen bordara, antxe ardiei kaso egiten gaua pasa zezan, de-sesperaturik bait zeuden —egunak joan, egunak etorri— ardiak falta zitazkielakoz.

Ala, ba, olako gau batean eta mutilla sapaian zai zegoela, non eltzen zaizkio lapurrak ukullura... Bera bakarrik, goitian; eta iru gi-zon, nola armatuak, azpian.

Kartutxo bakar bat zuela, botatzen du tiroa, eta oraindik arrituta dago nola ez ziren berarengana

igo, ziur aski yende geiago zegoela uste zutelakoz. Eta une artan, abererik ebatsi gabe yoan ziren.

Oraingoan ere, olako zerbait as-matu bearko dute gure nekazariak berei ainbeste gostatutako lanak eusteko, aspaldian bezala bait da-biltz, gure Euskalerrria'n zear eunka buru lapurtzen, Gipuzkoa ta Nafa-rroa alderdietan, inor oartu gabe. Abere oietatik batzuk opatuak dira urrutiko ferietan: Zamora'n, Gali-zia'n... Lapurrak, berriz, emengo yendeak izaki, ala ere pentsatzekoa aien buru nagusiak urrutiagokoak direla.

Zenbait aberezale bildu ziren Etxarri-Aranaz'ko Udaletxean, be-ren neurriak artu bearrean aurki-tzen direlakoz. Agintariak ez diete kaso geiegirik egiten afera triste ontan, eta zerbait geiago lagundu bear lukete langille auen ondasu-nak defenditzeko.

ARBILLENEKOA



Goizueta

Gaur, Erregue egun onetan, letra batzuk bialtzea gogoratu zait, bart gabean zeñen punzio pollita organizatu diguten gure emengo *Umore Ona* deitzen zaion motil eta neskatx taldeak.

Illun nabarrean adierazi ziguten koete edo *itxafero* soñu aundiko bonba esaten dioten orrelako batzuekin, zerbait bazetorrela ondolik. Zarrak eta gaztek, ni neroni aurrena nintzala, denak atera giñan kalera, eta or agertu ziran berreun bat neskatx eta motil mandire zuriz gorputza estalita, toalla edo pañuelokin buruan, turbante edo orrelakokin lotuta, arpegiak ikatzez beltz-beltz egiñak, Afrika-noak ba'lira bezela eta eskuetan bela motz batzuk sutan bazter guzitara tzingi edo txinpartak boteaz, eta erdian iru abere, beren Erregeak gañean zituztela umeeri bidean karamelok boteaz.

Plazara allegatuta, lenbiziko lana Jesus Aurtxo Jaio-berria, belau-niko yarri-ta, adoratzea izan zen, eta Arri beren erregaliak eskeintzea. Ordurako, aurretik egiñik zuten etxola polit baten, San Jose, Amabirjiña eta Jesus Aurtxo yarri zituzten. Gero, eskallera gora, aurretik silloi ta guzti preparatua zeukaten lekura igo, eta andik Errege Meltxor'ek egin zigun erri guziari bere agurra, esanez urrutitik zetozela, eta oso nekatuak; eta eskolako neska-motikoentzat erregalo asko zituztela, an, Oriente'n, artuak; baiño, kamion bat oso-oso, Loitz'eko mendi'n utzi bearrean aurkitu zirala, denak ekartzeko ainbat modu ez zutela, biño sei kaja beren mandotan artu zituztela, eta ayek antxe partituko zizkietela an ziran ume guziera, orregatik iñor ez mugitzeko beren tokitatik, eta banaka banaka deituak izango zirala, Erregen eskutatik beren paketetxoak yasotzeko.

Eskolako ume guzien lista osoa an zeukan Errege Kaspar'ek, eta denak deitu-alen igo ziran beren paketetxoa artzera, Erregeri musu bana emanaz. Nere iru biloba Ainhoa, Nagore ta Mirian ere deituak izandu ziran, eta paketeak yaso zituzten, biño bi Erregeri bakarrik musu eman zieten; beltzaren txanda tokatu zitzairenean, saltatu egin zuten, ari ez musu emategatik.

Eun ta larogei pakete partitu zituzten, eta ez nolanaikoak; denetan, karamelo ta beste gozoki askoren artean, pijama bana. Gau artan, denak lengo pijamak utzita Erregek ekarritakoekin lo egin omen zuten; gureak, beñepein, laister estreintu zituzten.

Askok kostatzen zait au eskribi-

tzea; alditan, letra bat zanpatu bearrean, beste bat egiten dut; biño, nai dut zuek nere borondatea ikusi dezazutela.

Euskaldun jaio, euskaltzale bizi eta euskaltzale ilko naiz!

SEBEINO BERROETA

Leiza

EIZTARIAK. Denak gezurtiak direlak badakigu. Eta aratx: gezurti andienak, eize kontutan ez du gezurrik esaten. Au Poli da, gizon galanta benetan. Egun batean, ze aize klase aterako ote zen igarri naian ari zirela, ara zer zion Poli'k:

—Ba, biar, egoa diagu; Papele-
ra'ko keiak Areso aldera jotzen du eta.

Eta Juan Pello'k:

—Au txoraa! Zer ikusteko zeukak

eguzkiak aizearekin? Demonio tonto zarra! Au Villava'ra bidaldu bearko diagu...

Eta eize kontuak bukatzeko. Sebastian Zirkulo'koak oillagor txakur bat eman zion Poli oneri. Onek dionez, «odol garbiko Pointer» omen da. Baiña, gauza orietan maisu direnek, 53 esne naasi badiutuela esan dute. Bestela, zerorrek ikusi; ez zera Poli'ren etxean ozkatu gabe sartuko.

Bein, joan zen Poli eizera. Jarri zion «Pointer» oneri txintxarri aundi bat; (ez zuen arrapatu Fernandorena ainekooa); eta, or joan da mendira. Ikusi du zakurra gelditu zaiola; eta, or dioa Poli ipurdia galtzen zuela. Prestatu du esko-peta eta, an zegoen txakurra begiak atera naian, zaldi bati begira...

A. UXOTEGIETA

Garazi

ARTZAIN ZAHARRAREN AFARIA

GILEN

Otto Pettan maitia:

Beti negian gitxu Garazin, aro txar batekin. Egun horma, bihar haize-hegoa, eta azkenian euria. Zer egin? Ez dea hori Jinkoaren nahia? Eta gau luze horiek? Zazpiak etorri orduko iluna!

Zionez, aurten ere, Manez-Artzaina jina duxu gure etxerat Errozate menditik beiti, bere artalde handia ezarrirek pentzetan, sekulako joare azantzarekin. Hauxe da gizon gisakoa eta ezta! Zernahi badakixi, eta oroz gainetik mendiko ixtorio guziak, ipuin zaharrenak Basa-Jaun izigarri batekin, eta Basandere xoragarriarekin ere. Aipatzen titxi, bestiak-beste, lehengo gerlen gertakariak, eta bixtan dena hego aldeko Nafartarren berriak. Arrastsetan, harekin supazterrian goxoki jarririk, ez nuxu segurki eneatzen. Azkenian ahatik, ama samurtzen duxu, erranez behar dutala joan oherat, haur parestiak bezala..!


Barda, Manez-Artzainari galdegin diakoxut zer ote jaten zien bortietan, bere etxolan bakarrik izanez, eta nola egiten ahal zitien taloak supazterrian. Berehala, amaren baimenarekin, egin titxi gure aintzinian bospasei talo, polliki errerik bere matxaroarekin. Eta gero, gasna-xuri puska bat hartu-ta, eman diaxu kukumarro eder bat bero-beroa. Zoin goxo den, mendiak elurrez xuritzen direlarik, kukumarroen jatia supazterrian! Ahotik ezin utzia!.. Hantik laster, aitak ere jan dixi gogotik talo ta xingar, eta ama aldiz talo ta esne.

Aitatxi, bere kukumarroari ausikiak emanaz, ixil-ixila zuxun zizeliaren xokoan. Bana dena irtsi orduko, erasian hasi duxu «behereko jende» zombaiten kontra, erranez onesten ez dakitela gure menditarren janari hoberenak. Jinkoak dakixi, omen, zombat zikin-keria saltzen diren jateko, hiri handietan, eta kario pagatuz alaintso!. Etxian bederen badakixigu egiatzki zer dugun mahaian.

Arte hortan, Amatxi orhoitu duxu gazte zelarik joan zela itsas ondoko ostatu arrotz baterat, eta gosetia baizen, galdegin ziela «tripasalda»...Ikustekoa zuxun ordian ostaleraren mokoa, ustez eta Amatxik galdegiten zakola basa-ihizi zombaiten bazka! Hortan, Amatxik hasarrian: «Ba, aisiago duxu, «boata» edo untzi txar baten idekitzia, hortik ateratzeko janaria prest-presta eta saltsa gorri debru batekin nahasia!..».

Beste aldian, Otto Pettan, erranen dataxu hea Indianoek zer jaten duten Ameriketako mendietan. Segur nuxu hek ere batuztela gauza biziki onak eta behereko jende zozoek maite ez dutenak.

Orai, baniaxu oherat, ama kexarazi gabe. Uzten xitut, Otto Pettan maitia, ene pott handienekin, eta bestalde artio.



KIROLAK

Retegi II'gna Txapelketa'tik kanpora

Joan diren illabete auetan pilotaren alorrean, gertatu zaigun gauzarik jakingarriena, II Retegi Bikote Eskularien Txapelketatik kanpora gelditu izatea da.

Zalantzarik gabe, Julian Retegi'tarra da pilotaririk onena. Ala ta guztiz, ez du Txapelketa onen bigarren saiorik jokatu, nor-geiagoketa ortatik botea izan bait da.

Maiz gertatu izan dira len ere orrelako gauzak. Joan den urtean ain zuzen, Iturri'k ezin izan zuen Txapela jantzi. Arribillaga anaiak izan ziren garailleak.

Oraingo onta, II Bergara eta Salbidea donostiarra izan dira Gasteiz'ko «Mendizorrotza»'n erasundarra baztertu

duzenak. Obeki esateko, Juliantxo'k berak baztertu du bere burua. Ona emen zergatik: Retegi'tarren etsaiak II Bergara eta Salbidea ziren. Retegi'tarrek irabazi zuten 22 ta 11; baiña, lenago, Logroño'ko «Adarraga»'n 22 ta 9 galdu bait zuten, leiaketatik kanpora gelditu dira. An, «Adarraga»'n, ondatu zuen bere burua Julian'ek. Ez genduen partidu ura ikusi, baiña an izan zirenek diotenez, batere pulamenturik gabe galdu zituen azkeneko tantoak.

«Mendizorrotza»'n, bai; an izan giñen, eta gure bizi guzian ikusi dugun jokurik ederrena ikusi genduen. Bai ederki jokatu zuela II Retegi'k! Txapelketan aurrera jarraitu nai ba'zuen, ez zien etsai 9 tantotik pasatzen utzi

bear, eta ori erdiestera atera zen frontoira. Ta ortarako, kixazkoa zen partidua egin zuen: apainketarik gabeko joku kementsu egokia. Ez zuen, ala ere, bere asmorik bete aal izan.

Egia da bere anaiak errez jaso zezazkean bi edo lau pilota galdu zituela; baiña, ez diteke esan gaizki jokatu zionik. Julian'ek berak galdu du txapelketa. Eta ez «Mendizorrotza»'n, «Adarraga»'n baizik.

Gaur-egun, Julian da pilotaririk onena, baiña bere kirio edo nerbioak baretzen ikasi bear du. Ez dut uste II Retegi baiño pilotari oberik izan denik. A, nolako txaloak jo zizkion «Mendizorrotza» betetzen zuen jendeak! «Bakarrik irabazi lezaieke orrek beste irurei, nai ba'du», esaten zuen nere atzean Gasteiz'ko pilotazale batek.

Ez dut uste III Atano'z gero, II Retegi aiñako pilotaririk izan denik. Ogeta, Gallastegi, Onaindia, VII Atano ez dira aren neurrira eldu. Nere aburuz, bada Julian Retegi'tarra III Atano aiña ere!

ERASO

Pilota-Jokua (I)

«Jaungoikoaren izenean jokatutako pilota partidua, Apaizaren eginkizun bat bezelakoa dela esan genezake».

(Jean Ibarregaray)

Leengo batean, aspaldiko partez, eguraldi txarra zegoela «Osasuna» ikustera joateko eta: —«Joiño!; zergatik ez gaituk urbiltzen Huarte'ko Euskal Jai aldera?», esan zidan nere aitagarrebak.

Joan gaituk aruntza, artu dizkiagu sarrera txartelak eta antxe jarri gintuan, bapo, aulki bakoitzean, berotzen ari ziren pilotariak begiraz.

Alako batean, irristu bat atzeko aldetik. Begiratzen diat eta, Larreborda'ko Martiuxe alajaina, bi eskuak paper gorritz beteak zeuzkalarik. Ordurako aditua nuen bai, erabat frontonean sartu ta ibiltzen zela, etxe eta bordak galduaz.

—Elurra diagu laster, esan zidan txapelari ezker-eskuin bat emanez.

—Iduritzen al zaik?

—Zuek onera azalduz geroz, zer esanik ez!

—Ez ukek aurreneko aldia izanen.

—Eta ez dedila azkenekoa izan!

Baiñan, ez zuen itza bukatu, gu agurtzeko momentua beatz bat goratu bait zuen eta, orain zetorkion putzezko pilota zulatua, barrenean beste paper gorri bat zekarkio-larik.

—Ikusten al dituk oriek?

Ordurako gugana jetsia zen eta, ori esaten zuen bide-nabarrean, ukondoa nere saietsean jarriz, eskuin aldera keinatuz, iru mairu beltz agertu zizkidan.

—Ez duk arritzekoa, erantzun nion.

—Mairuak frontonean? Ago ixilik, motel. Amaika ikusteko!

Aiek ziren gure Martiuxe'ren lanak. Batetik neri itz egin. Bestetik, beatz goratu. Eta noizean bein arditan ba'lebil bezelako irristua bota eta zapela mugitu.

Ni bitartean, nere baitan, Martiuxe'k egindako galderari bueltak ematen gelditu nintzen. Burura etorri zitzaizkidan bat batean, Albert Luze jaunak «Mangnifique Histoire de Jeu de Paume» delako bere liburuan azaltzen dituenak, au da, pilota-jokua Europa'n mairuen bidez sartu izan zela. Pilota-jokua aberatsen gauza omen zen, berak dioenez. Gaurko tenis-a, gure telebistak ipurzulotik eta guzi sartu nai diguna bezelatsukoren bat. Bai, abera-

tsena, Frantzia'ko Iraultza ailegatu zenean, denok berdin bear genuela eta, ordurarte Europa'n ainbeste zabaldua zegoen jokuak, Euskal Erriko mendi tartean izkutatzer a etorri zitzaigun.

Ez al duzue bein ere irakurri izan garai batean ikasten genituen liburu xeble aietakoren batean, Espainia'ko Errege bat, Pelipe Leenengoa ain zuzen, pilota partidu bat jokatu ondoren, ur otza edateagatik gaizkitu eta il zela? Daithekena da, baiñan, ez jakin ze pilota klase izanen ziren... Beti ere, «Hermoso» esaten zioten emakumeek eta, auengandik ere gaitzen batzuk kusatzen omen direla eta...

Pernado Zazpigarrenak ere zerbait ikustekoa izango zuen pilota jokuarrekin, noski. Ez al duzue gogoratzen, gauzaren bat errezegia dela adierazi naian erabiltzen den esaera ura: «Orrela jartzen zizkiotela Pernado zazpigarrenari...»

Lepanto'ko Mainguak ere bein baiño geiagotan agertzen du bere liburuetan pilota-jokua: «Esan dizuet, dio Quijote'ren aurreneko liburuan, erantzun zuen apaizak, au dena gure alper asmoak arintzeko egiten dela, ongi antolatutako errepubliketan ajedreza, pilotajokua eta abar, lanik egin nai ez edo ezin dutenentzat jartzen diren bezela...»

Ezin utzi aipatu gabe, pilotak nola egin bear ziren argituz, Luis Amaikagarren, Frantzia'ko Erregeak, zabal-dutako agindua: «Larru onekoak bear zutela izan; ...are, kisu, metal ondar, kare, zerrauts, auts, goldio edo lurrik gabe eginak, eta ori dena, diru zigorpean»

Aratz bada, gure pilotak, guk ain guretzat jotzen duguna, nondik dakarren bere belz kolorea. Ori mairuen-gandik ekarri diagu, Martiuxe!

—Zer esan dek?

—Au joan dela gorrien alde, Martiuxe.

—Zer egingo diagu, bada? Jodi daitezela galdu dutenak, neri berreun mila pezeta kendu zizkidek eta.

—Lasai, Martiuxe, lasai! Orrek bigarren partiduan bere bueltak ekarriko dizkik eta.

—Bigarrenean bearko dik. Onetan ez beintzat.

Yon ZENARI

